

TXIKIAREN HANDINAHIA

Munduko unibertsitate onenek filosofo handien izenak dauzkaten hitzaldi-saioak ematera gonbidatzen dituzte garaian garaiko pentsalari garrantzitsuenak. Adibidez, *Immanuel Kant Lectures* dira Stanford Unibertsitatekoak, *William James Lectures* Harvardekoak. Azken hauek bereziki garrantzitsuak dira hizkuntzaren estudioan dabilenarentzat, hitzaldi horietan plazaratu baitzituzten John Austinek 1955ean eta Paul Gricek 1967an pragmatika linguistikoaren oinarriak.

Horiek guztiak txiki gelditzen dira gure udako unibertsitate jardueren aldean. Hori ematen du behintzat inguruko komunikabideek eskainitakoari jaramon eginez gero. Udan egiten direnen aldean barregarri dira, itxuraz, gainerako urte sasoietan egiten direnak; desproporzioa ikaragarria da. Uda partean albiste falta dutelako edo, eskuzabal irekitzen dizkiete espazioa eta denbora azken uda ikastaroko hizlari unibertsitario nahiz unibertsitatez kanpokoei. Baina erantzukizuna ez da komunikabideena soilik. Udako nahiz neguko gure unibertsitate hauek, ofizialek nahiz herritarrek, aparteko esfortzu ekonomiko eta mediatikoak eskaintzen dizkiete udako feria hauei; ohiko unibertsitate jardunari eskaintzen ez dizkioten esfortzu horiexek, hain zuzen ere. Unibertsitate agintariek ongi ikasia dute komunikazioaren gizarteko legea: prentsan letra potoloak bereganatzen dituztenak bakarrik existitzen dira. Prentsan jasotzen den horrek soilik justifikatzen du unibertsitatea diru publikoz ordaindu edo laguntzea. Txikiak handi agertu nahi du. Mahai-inguru eskasena ere jakintza unibertsalerako ekarpenik handienaren pare puztu behar da, gizartea unibertsitateak duen garrantziaz jabe dadin. Kontu egin beharko lukete, ordea, exagerazioak ez ote dien kontrako efektua ekarriko. Ez bakarrik geratzen zaien sinesgarritasun apurra galtzeko arriskua daukatelako, baten bat unibertsitarioei ordaindutako lanegun bakarrak uztaila, abuztua eta irailekoek izan beharko luketela pentsatzen has daitekeelako baizik.